

Neguko oporrak

Gaur, eguerdiko **12:30ean** HH (3-6), LH eta DBHko ikasleek **neguko oporrak** hasiko dituzte; **Haur Eskolakoek**, aldiz, **abenduaren 22an**, eta horiek urtarrilaren 8ra arte iraungo dute.



Jangela-zerbitzuaren oharra

Abenduko menua honakoa izango da:

- o 3 – 16 urte. [Menu arrunta](#)
- o 3 – 16 urte. [Intolerantziadunentzat menua](#)



Mugikorraren inguruan zenbait aholku

Nola ematen diegu telefonoa?

Askotan, oparizat, baina adituek ez lieke sekula telefonoa oparitan emango bere seme-alabei.

Opariak ez dira baldintzapean ematen. Aldiz, gure seme-alabei telefonoak erosten dizkiegunean, sarri gurasoen kontrolerako aplikazioen bat instalatzen diegu egiten dutena zaintzeko, edota bestela, baldintzak jartzen dizkiegu.

Esango genuke aurrez lanketarik egin gabe ematen zaiela sarri telefonoa. Gurasoontzako erronka handia da hori, besteak beste, guk ez dugulako ezagutu mundu hori gure gazte garaian. Guk geuk nola erabiltzen dugu, esaterako, WhatsApp-a? Gogoeta handia daukagu egiteko.



Mugikorra opari? Zenbait gomendio:

- ✓ Opari bezala ematea ez da gomendagarriena.
- ✓ Eman aurretik erabilpenaren pedagogia egin.
- ✓ Ematerakoan kontratu bat egin.
- ✓ Mugikorraren ardura gaztearena da, mugikorrarekin egiten duenaren erantzukizuna, gurasoona da.

[Informazio gehiago...](#)

LEHEN HEZKUNTZA

LH2. Mailako familientzat oharra

Ohar honen bitartez, Igeriketa planaren nondik norakoak zehaztu nahi dizkizuegu. Horretarako, datu nagusienak eta funtzionamendu orokorra azalduko dizkizuegu.



DATUAK

-Ekintza burutzeko datak (15 egun):

- 🏊 2A gela (Larraitz) – **Urtarrilaren 8tik 26ra** (biak barne). **10:00etatik 11:00etara.**
- 🏊 2B gela (Ursula) – **Urtarrilaren 8tik 26ra** (biak barne). **11:00etatik 12:00etara.**

-Beharrezko materiala:

- *Motxila
- *Bainujantzia
- *Igeriketako txanoa (ahal bada, telazkoa ez)
- *Igeriketako betaurrekoak (aukeran)
- *Toalla
- *Txankletak

Dugun denbora urria dela eta, kloroa kentzeko dutxa azkar bat soilik hartuko dute (bainujantzia eta txanoa jantzita dituztela), ondorioz, ez dugu xaboi edo txanpurik beharko.

FUNTZIONAMENDUA

-Ekintzak iraungo duen hiru asteetan, ikasgelako ordutegiak aldaketa batzuk jasango ditu, ikasgai ezberdinak kaltetuak izan ez daitezten.

-Kiroldegian irakasle baten ardurapean egongo dira eta saioa 2 monitore espezializatuek burutuko dute.

-Egun horietan **ikasleak 12:30etan ikastolan** jasoko dituzue.

LH2. Mailako familientzat oharra

LH2. Mailakoak urtarilean txirula ekarri behar dute, musikako liburua eta karpeta kantekin batera. Etxean txirula ez dutenek Olentzerori eskatu diezaiokete.



BIGARREN HEZKUNTZA

Irteera-kobrantza DBH1

GAUR, DBH1. mailako ikasleei Eureka museoko sarreraren kobrantza egingo zaie. Kostua **7,50 €** izango da.

